



**UNHCR**  
**ACNUR**

Agência da ONU para Refugiados

# ERREFUXIATUEI BURUZ IRAKASTEA

**6 ETA 9 URTE**  
**BITARTEKOAK**

**Errefuxiatuei buruzko ikaskuntza hainbat gaitan txertatzea lehen hezkuntzako lehen zikloan**

Gida honek ideia batzuk eman nahi ditu errefuxiatuen gaia ikasketa-plan nazionaletan txertatzeko moduari buruz. Ideiak errazak eta ikasleen mailara egokitzeko errazak dira.

Baliabide gehiago: [acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html](http://acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html)



# HASI AURRETIK

Ikasgaien plangintzan errefuxiatuak, asilo-eskatzaileak eta migratzaileak sartzeari buruzko oharra.

Errefuxiatuei, asiloari, nazionalitateari eta migratzaileei buruzko jarduerak egin aurretik, har ezazu une bat zure gelako ikasleei buruz hausnartzeko. Horietako batzuk errefuxiatuak dira, asiloa eskatzeko prozesuan daude edo aberrigabeak dira?

Kasu horretan, pentsatu haiekin eta gurasoekin hitz egitea, adinaren arabera. Ahal bada, sar itzazu gurasoen eta haurren ideiak eta iruzkinak saioetan, eta eska iezaiezu galderei erantzuteko, baldin eta espresuki adierazi badute gai horiei buruz hitz egin nahi dutela.

Aberrigabeek ez dute inongo herrialdetako nazionalitatearik. Aberrigabearen izaera hainbat egoeraren ondorio izan daiteke. Adibidez, baliteke talde etniko edo erlijioso batzuk lege nazionalak ez onartzea herrialde horretako herritar gisa; haur batzuk gurasoen herritartasun-herrialdetik kanpo jaiotzen dira eta ezin dute gurasoen herritartasuna lortu, ez eta jaio diren herrialdekoa ere.


Munduko hainbat herrialdetan, legeak amei ez die uzten beren nazionalitatea beren seme-alabei transmititzen.

Aberrigabeek zailtasunak izan ditzakete oinarritzko eskubideak lortzeko, hala nola hezkuntza, osasuna, enplegua, mugitzeko askatasuna eta abar. Horiek gabe, askotan, oztopoei eta etsipenei egin behar izaten diete aurre.

Ikasgelan haur aberrigabeak badituzu, zuhurra izan "herrialdea" edo "nazionalitatea" bezalako hitzak erabiltzean. Horren ordez, "zuen etxea" edo "zuen kultura" bezalako hitzak erabil ditzakezu.

# MATEMATIKAK

ESKURATUTAKO GAITASUNAK - IKASKUNTZAREN EMAITZAK  
Zenbakiak irakurri eta idatzi, eta zenbaki-sistema hamartarra ulertu.  
Errefuxiatuen zifrak erabiltzea zenbakirik altuenak irakasteko.



ACNURen "Irakasleentzako tresnak" webguneko Hezkuntza Baliabideen atalean, errefuxiatuei buruzko zifrak dituzten adibide- taulak aurkituko dituzu. Hona hemen [esteka](#).

Batekoa	1
Hamarrekoa	10
Ehuneko a	100
Milakoar	1.000
Hamar millakoa	10.000

1. ETAPA: Galdetu hurrei ea badakiten zenbat haur eta gazte errefuxiatu dauden munduan (18 urtetik beherakoak). Ondoren, agian galdetu ahal izango duzu zenbat errefuxiatu egon daitezkeen eskualde guztietan. Hamarnaka, ehundaka edo milaka daude? Erabili taula zenbakiak azaltzeko.

2. ETAPA: ACNURREN webgunea bisitatu ([popstats.unhcr.org/en/overview](http://popstats.unhcr.org/en/overview)) ikasleei eguneratutako zifrak erakusteko.

Eskatu zenbakiak idazteko edo zenbakiak irudikatzeko blokeak, paperak edo bestelako objektuak erabiltzeko.

# GEOGRAFIA

## ESKURATUTAKO GAITASUNAK - IKASKUNTZAREN EMAITZAK

Mapak erabiltzea jatorrizko herrialdeak, gatazka-herrialdeak eta inguruko herrialdeak identifikatzeko



Errefuxiatuen kopurua herrialdeka aurkituko duzu ACNURen datuen webgunean:  
[data.unhcr.org](http://data.unhcr.org)

1. ETAPA: Erabili lur-globo bat edo mapamundi bat eta eskatu haurrei non bizi diren adierazteko; bai eta, zenbait herrialde mugakide, egon diren herrialdeak edota familia edo lagunak dituzten zenbait herrialde ere.

2. ETAPA: Azaldu gaur egun gatazkak dauden herrialdeak, hala nola Siria, Afganistan edo Hego Sudan, eta adierazi herrialde mugakideak.

3. ETAPA: Azaldu beren jatorrizko herrialdeetatik ihes egiten duten errefuxiatu gehienak inguruko herrialdeetan daudela.

Siriako adibidea erabiltzen baduzu, Turkia, Libano eta Jordania aipa ditzakezu, baita inguruko beste herrialde batzuk ere.

Hego Sudanen kasuan, Kenya, Uganda, Etiopia eta inguruko beste herrialde batzuk aipa daitezke.

# ALFABETATZEA ETA AURREALFABETATZEA

## ESKURATUTAKO GAITASUNAK - IKASKUNTZAREN EMAITZAK

### Irakurketa eta hitz berrien irakurketa



Jarduera hau haurrak irakurtzen hasten diren etapa batean egin daiteke. Idatzi gelako haur guztien izenak eta jarri alfabetoaren arabera.

1. ETAPA: Talde txikitan banatuta, eman hurrei izen ezberdinak, irakur ditzaten, eta entzuezu ikaskideen izenak fonetikoki ahoskatzen. Ba al dago beste era batera ahoskatu daitekeen izenik? Ikusi hurrek izen ezberdinak irakurtzeko modu berriak aurki ditzaketen.

2. ETAPA: Jarraian dauden galderak egin iezaiezu:

"Ba al da antzekoak diren izenik?"

"Herrialdeko beste nonbaitetik, beste herrialde batetik edo munduko beste nonbaitetik al datoz?"

"Izenak eskualdeka edo herrialdeka taldekatu ditzakezue (ahal bada eta egokia bada)?"

3. ETAPA: Galdetu ikasleei leku desberdinetako lagunen edo familien izenak ezagutzen dituzten, eta eska iezaiezu idazten saiatzeko. Egin 2. etapako galdera berdinak.

# ZIENTZIA

## 1. orrialdea 2tik

ESKURATUTAKO GAITASUNAK - IKASKUNTZAREN EMAITZAK  
Lurralde desberdinetako klimak ulertzea.



Bildu klasea urtaroei eta urtaro bakoitzak duen klima motari buruz hitz egiteko.

1. ETAPA : Galdetu hurrei munduko beste leku batzuetan egon diren eta leku horietan egon daitekeen klima zein den.

2. ETAPA: Mapa bat erabiliz, galdetu zer dakiten Ipar eta Hego poloetako klimari buruz.

3. ETAPA: Eman haur bakoitzari bi edo lau zatitan banatutako paper bat, bizi diren lekuan dauden urtaroak marraztu ditzaten. Eskatu hurrei urtaro bakoitzean egiten dituzten jardueren marrazkiak egiteko.

**JARRAITU HURRENGO ORRIALDEAN**

## 2. orrialdea 2tik

4 ETAPA: Galdetu haurrei zer arropa behar duten urtaro bakoitzean, eta ikusi ea urtaro desberdinetako marrazkiekin lotu dezaketen. Galdetu ea zer egingo luketen arropa hori gabe hilabeterik hotzenetan eta gogorrenetan. Galdetu ea hilabete beroenetan zer beharko luketen; adibidez, ur gehiago, haizagailuak, aire girotua edo arropa freskoa.

5. ETAPA: Deskribatu gerra edo gatazka baten ondorioz beren etxeak utzi behar dituzten familien egoera eta kokatu gatazka hori mapan. Erakutsi haurrei jendeak geratzeko leku seguru gisa aurkitzen duen herrialderik hurbilenak. Hego Sudango adibidea erabiltzen baduzu, Kenya, Uganda, Txad eta Etiopia aipa ditzakezu. Eskatu haurrei errefuxiatuek eraman beharko luketen edo ihes egin zuten herrialdeetako klimetan bizirauteko beharko luketen arroparen zerrenda bat egiteko.

Bilatu baliabide gehiago:

[acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html](http://acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html)

Hezkuntza baliabide hauek Mialy Dermishek garatu ditu.